

Gernika Memoriaren Lekuko plataformak urteko udal aurrekontuei begira, kulturari arreta jarri nahiko lioke, eta gogoeta eta ideia-proposamen hauek agintariei helarazi, kontuan hartu daitezten:

KULTURA

Herria

Herri bakoitzak bizitza begiratzeko eta antolatzeke modu propioa du. Bizitza esaten denean, errealitate fisikoaz (norbanakoa, hizkuntza, gizartea, ingurugiroa, erritoak...) eta errealitate metafisikoaz (norbanakoa, sinesmenak, kosmogonia, mitoak...) dihardugu.

Herri bakoitzak, bere modua duenez, bere **identitatea** azpimarratzen du beste herrien aurrean. Desberdina dela aldarrikatzen du eta eguneroko lanean desberdintasun hau, herria bizi bada, nabarmendu egiten da.

Identitatea

Desberdintasun hau zaindu, gorde eta transmititu egiten da, nortasunari ateak zabalduz. Komunitate berezi bateko kideza ez da, estatuetan gertatu bezala, derrigorrezkoa, eta ez da beste desberdintasunen aurka eraikitzen. Desberdintasuna aberastasuna da. Abagune sozio-politiko guztien gaineratik nor eta nongoak diren argi dute estaturik gabeko nazioek. Desberdintasunak mina ematen dio estatuei eta, horregatik, indarrez asimilatu nahi izaten dute borondatez atxikitzen ez dena.

Asimilazio kulturala (uniformizazioa) da estatuek aplikatzen duten armarik eraginkorrena (epe luzean emaitzak lortu asmoz). Jomuga identitatea da. Nola erasotzen gaituzte? Toponimia aldatuz, euskalduntzea auzitan jarritz, komunikabideak itxiaraziz, unibertsitatea “esparru bakarra” bihurtuz, lan-harreman arrotzak inposatuz, zuzenbide eredu kanpotarrak ezarriz... Azken fin ean bestelako “egia” antolatuz, bestelako herri bat erakutsiz komunikabideen laguntza eskergaz.

Kultura

Kultura, beraz, herri baten bateragilea eta kanpo-erasoak geldituko dituen harresia da; sistema sozial bat da. Eragile kulturelek proiektuak sortu eta zehaztu behar dituzte. Administrazioak baliabideak eskaini behar ditu eta egoki gestionatu, posible denean, autogestioa bultzatuz, besteak beste. Azken urratsa egindakoa denon artean etengabe ebaluatzea izango litzateke. Harresi horren sendotasuna hortik etorriko da, ez ordea, kultura pribatizatuz eta negozio bihurtuz merkatuaren aginduetara (Guggenheim...).

Kultura ez da itxia den zerbait, egunero egiten ari dena baizik, behetik-gora, herritik; kultura ez da lau pareten barruan bizitzeko. Herrian eta herriarentzat egin behar da, bizi egin behar da.

Kultura eta subirautza

Musikariak, zinemagileak, kirolariak, kultur eragileak dira, azken finean, gure enbaxadorerik onenak. Besteek ekoiztutako kulturaren kontsumitzaile soilak izan barik, guk geuk sortutakoari eman behar diogu bidea, geure marka ezarriz.

Edukien ekoizpenik gabe ezinezkoa da subirautzan sakontzea, ezen edukiak ekoiztea subirautza modu bat baita. Kultura elkarlana da, identitatea da, iragana eta etorkizuna lotuko duen haria, **memoria kolektiboa eta historikoa**. Iturri hauetatik edaten dute herriek bizirauteko.

Kultura eta kontsumoa

Produktu kulturalak kontsumora zuzenduak daude. Euskal produkzio kulturalaren bilgune garrantzitsuek (Durangoko azoka, Sarako biltzarra, Iruñeako azoka) lan eskerga egin behar dute merkatuan lekua izateko lehenik, eta lehiatzeko gero, iraun nahi badute (disketxeak, argitaletxeak, ekoiztetxeak...). Diskriminazio positiboa eman beharko litzateke.

Kultura eta aniztasuna

Euskal Herria kultur desberdinen arragoa izan da eta izaten jarraitzen du. Aberastasun hori baliatu behar dugu, indibidualismoari elkartasunaz erantzunez, eta uniformizazioari errespetuan oinarritutako diferentzia aldarrikatuz. Herri txikiek (gu gara bat) ahalegin bikoitza egin behar dugu etorkizunari aurre egiteko. "Txikiaren kontrako konspirazioari aurre egin behar diogu". Iraultza

egiteko modu asko dago. Kultura babestea da bat, kultura, poetaren hitzetan, etorkizunez kargatutako arma delako.

Kultura eta memoria

Ondare historikoa: artea, hizkuntza, lanak...

Memoriak baditu bere lekuak. Ondare heterogeneoa osatzen duten lekuak dira, izan ere: aztarnak, hobiak, mugarriak, eraikinak, hormak, ibilbideak, interpretazio-guneak... Hala ere, nahiz eta oso ezberdinak izan, ezaugarri komuna dute: giza eskubideen aurkako bortxaketaren lekuko izan ziren. Lekuok, beraz, memoria ehuntzen dute inpunitateari eta ahanzturari aurre egiteko. Nabarmendu egiten diren espazioak dira, kontakizun berria, kolektiboa eta partekatua eraikitzeko. Hona adibide bat:

Kultura Gernikan

Aztertu behar dugu zein diren eragileak, eta nola artikulatu behar ditugun eragile horiek gure kultura-sistema propio bat garatzeko.

Gernika Bakea eta Kulturaren herria.

Hori horrela bada, udalari galdetu behar diogu ea zer-nolako egitasmo, tresna eta baliabide dituen herritarroi eskaintzeko. Zer euskarrietan oinarritzen da kultura Gernikan? Zeintzuk dira irizpideak?

Bigarren ideia bat, eta aurreko kultura eta aniztasunaren puntuarekin lotuz: Gernika kulturaren hiria bada, kultur aniztasunarena ere bada? Migrazioaren hiria? Harrera hiria?

Ezinbestekoa da diagnostiko bat egitea:

- Zer azpiegitura ditugu? Nola kudeatzen dira?
- Zer talde? Zer lan egiten dute? Zelako baldintzatan? Zein dira beraien eskaerak?
- Jarraipenik egiten al da? Eta, baloraziorik, ebaluaziorik?
- Zer aurrekontu du udalak kulturarako?
- Zer irizpide du heldutasun teknologikoaren gainean? Mundu Digitala.
- Genero-arrakala ixteko zer proposamen egin dira kultur arlotik?
- Migratzaileak integratzeko zerbait egiten al da? (euskalduntze planak, euren kultura herriratzeko, partekatzeko planak...).

- Ingurugiroa kultura-planean aintzat hartzen al da? Guk ere ez al dugu gure "pachamama" zaindu behar?
- Udal liburutegia. Fonoteka, Bideoteka, kirol instalazioak, tailerrak, lokalak...
- Ikus-entzunezkoak: musika taldeak, dantza, antzerki, bideo, zinema...
- Arte plastikoak: diseinu grafiko, pintura, eskultura, zeramika...
- Komunikazio esparrua: Irrati libreak, telebista, prentsa...

Komunikazioa

Taldean atomizazioa, isolamendua ematen da. Inkomunikazioa. Egoera honekin apurtu behar da. Egiten dutena zabaldu egin behar da. Egoera kulturalaren hausnarketa bateratu bat egin behar dugu, eta batera egin presioa egin behar den tokian. Komunikazio-sare bat antolatu beharko litzateke, egitasmoak plazaratzeko, elkarlana bultzatzeko... Kultura demokratizatu eta sozializatu egin behar da.

Nazio proiektu batean garrantzitsua da kultur sistema eta komunikazio sistema indartsuak izatea. Etengabe hornitzen gabiltzan Herri Artxibategi bat indartu behar dugu.

Bukatzeko azpimarratu behar da, kultura eta bazterketa bateraezinak direla. Ze kultur-politika eta ze kultura politiko demokratiko sostengatzen da biztanleriaren zati handi bati, demokraziaren oinarrian dauden eskubideak ukapenean?

Gernikan kulturak duen egoerari pultsua hartzeko batu beharra dago, diagnostiko partekatu bat egin, eta, ahal bada, sortzen diren kezka eta asmoei aterabide bat eman. Taldeen arteko harremanik ezak atomizazioa dakar. Bakoitzak bere aldetik eta ahal duen moduan lan egiteko joera nagusitu da. Herri bateko kultura harreman-sare tinko batean oinarritzen da.

Kulturaren biziberritze-lan bat egin behar da. Ekintza isolatu eta puntualetan jardutea baino, jarraitasuna izango duten egitasmoak finkatzea da helburua. Honela, ikuspegi estrategiko batetik, kultur irizpideak, egitasmoak, oztopoak eta abar plazaratuko lirateke.

MUSEO KOMUNITARIOA

- Museo komunitario bat komunitate berak sortzen du, tresna bezala bere ondarearen jabetza fisiko eta sinbolikoa babesteko.

Herriaren memoriaren ezagutzatik abiatuta, hausnarketa, kritika eta sormena bultzatzen du. Nortasuna indartzen du, norberaren historia eta balioak legitimatzen dituelako, komunitatearen bizimodua barrura eta kanpora proiektatuz.

- Museo komunitario bat beste komunitate batzuekiko kultura-trukerako zubi bat ere bada, eta jatorri eta kultura ezberdinetako arrago bihurtu den herriarentzako ezin hobea: interes komunak aurkitu eta partekatzeko, aliantzak egiteko eta herri parte-hartzaileago eta justuago bat eraikitzeko.

- Gu, gure Museo Komunitarioa sortzen saiatu ginen bonbardaketaren 50. urteurrenean. Horretarako, Picassoren *Guernica* margolana hartuko zuen museoa proiektatzeko lehiaketa antolatu genuen. Urte gutxi falta dira Gernika bonbardatu zeneko 100. urteurrena betetzeko. *Guernica* margolanak ere ehun urte beteko ditu, ondorioz. Zergatik ez hasi Museo komunitarioaren ideia lantzen mendeurrenari begira?

Zehaztapenetara joz:

2022.urtean **Gernika-Lumoko gaurko kultura-sistemaren diagnostikoa egitea** iradokitzen dugu. Alta, inoren monotorizaziorik gabe egokiena, eta zorrotzena (errealena) izango zela uste dugu.

Zergatik? Aurretiaz inorengandik zehaztu gabe helburu zehatzei ez erreparatzeko. Diagnostikoaren xedea, horixe baita: diagnostikatzea gure osasun kulturala.

Nola? Kanpo agente bati eskatzea proposatzen dugu. Kulturaren adiera zabalenari eskainiz (deialdi publikoa egin, hautagaiak jaso, epai-mahai batek hautatu, eta esleipena gauzatuz). Gure herrian badaude horrelako instituzio, elkarte edota espazio horretarako adituak direnak (Joxemi Zumalabe fundazioa, Euskadiko gazte kontseilua, Labayru fundazioa, Ikuspegi behatokia, EHUko parte-hartuz ikerketa-taldeak, ala ikerlari taldeak -norbanako edo taldeak...- Gernika-Lumon arlo horretan ekarpenak egin dituzten lagunak badaude: Ramon Zallo, Eneritz Artetxe... horren lekuko).

Epeak? Urte honen amaieran txostena jendaurrean aurkeztea helburua izan daiteke (horrek, aurretik egin beharreko prozesu guztia

marrazten duelako, dagokion diru-partida gehituz txostena-diagnostikoa-azterketa gauza dadin).

Museo komunitarioari dagokionez, aurtengo xedea **esperientziak ezagutzea** litzateke. Aurretik munduan egon diren egitasmoen berri izatea, haiengandik ikasteko.

Horretarako, **ezagutzarako espazioak sortzea** proposatzen dugu: hitzaldiak, konferentziak, esperientzien laborategia...

Bigarrenik, ideiaren garapenaz arduratu den **lan-taldearen osaketa** eraikitzea.

Hirugarrenik, ideia modu kolektiboan eraikitzeko, egungo Gernika-Lumoko **eragile kultural guztiekin lehen kontrastea** egitea.

Azken hitzak:

Udal aurrekontuak herritarren ongizaterako lehentasunen marrazketa bat dira, hein handi batean. Lan honetan zehar ez dugu baten ere ez aipatu covid-19aren pandemia globalak kulturen uzten ari duen marka. Eta logikoa den bezala, kontuan hartu behar da: kultur eragile eta langileak aintzat hartzetik, kultura komunitatea eta espektatiba bat sortzeko laguntzeko erregaia bezala ulertzetik, eta pandemia egoera bati arnagune gisa bezala kokaturik, besteak beste. Kultura estrategikoa da pandemia garai batean ere bai.

Gernika Memoriaren Lekuko plataformak, eta berau osatzen dugun eragileok, zentzu horretan, subjektu aktiboak izan nahi dugu. Ez ditugu iradokizunak helarazten beste norbaitek gara ditzan. Kultura gu garenaren parte da, beraz kultura -bere adierarik zabalenean- egiteko tresna gisa kokatzen dugu geure burua. Izan bedi.

Gernika-Lumon, 2022ko urtarrila amaieran